En 1999 *Gipuzkoa* sigue siendo territorio histórico donde más porcentaje de trabajo recae sobre el cónyuge del titular y otros familiares. En cualquier caso, la tendencia es a la baja (46% en 1999 frente al 50% de 1989) y a un ritmo muy parecido al de *Bizkaia*, mientras que en *Álava* el ritmo es mucho más acelerado (34% en 1989 y 21% en 1999). Es evidente que los procesos son distintos, porque mientras en *Álava* el descenso se ve compensado por un incremento importante del número de horas cubiertas por personal contratado y el porcentaje de UTAs cubiertas por el titular desciende, en *Bizkaia* y *Gipuzkoa* el trabajo no cubierto por la familia recae en el titular (en *Gipuzkoa* el titular realizaba en 1989 el 46% del trabajo y en 1999 el 50% y en *Bizkaia* 52% y 57% respectivamente).

Estas situaciones pueden afectar a la capacidad de agricultores y ganaderos de sacar adelante la explotación y de realizar los trabajos adecuadamente, así como a su calidad de vida, sobre todo en un contexto general de cambio de valores, que altera la forma de entender el ocio, las vacaciones, las relaciones familiares, etc. Es importante tener en cuenta que las tareas requeridas por una explotación agrícola exigen, en muchas ocasiones, jornadas amplias y continuas a lo largo del año. Por otra parte, la disminución de los márgenes comerciales obliga a trabajar con volúmenes de producción cada vez mayores. Estos aspectos provocan pérdidas en la calidad de vida y condicionan el relevo generacional en la actividad agraria.

## 9. LAN FAMILIARRA ETA ALOKATUA

1999an, Gipuzkoak jarraitzen du izaten titularraren ezkontideak eta familiak lan gehien egiten duen lurraldea. Nolanahi ere, beherako joera dago (% 46 1999an eta % 50 1989an), Bizkaiko abiadura berean; Araban berriz, askoz ere azkarrago ari da jaisten (% 34 1989an eta % 21 1999an). Begi-bistakoa da prozesuak desberdinak direla. Araban, alokatutako langileek ordu gehiago egiten dute lan eta titularrak egindako ULUen ehunekoak behera egin du; horrek jaitsiera orekatzen du. Bizkaian eta Gipuzkoan familiak egin gabeko lana titularrak egiten du (Gipuzkoan titularrak lanaren % 46 egiten zuen 1989an, eta % 50 1999an; Bizkaian, % 52 eta % 57, hurrenez hurren).

Egoera horiek nekazarien eta abeltzainen ahalmenari eragin diezaioke ustiategia aurrera ateratzerako eta lanak egoki egiterako garaian, bai eta bizi-kalitateari ere; batez ere, balioak aldatzen ari diren garai honetan; izan ere, aisia, oporrak, familia-harremanak eta abar ulertzeko era aldatzen ari da. Kontuan hartzekoa da, nekazaritza-ustiategietako lanek, sarritan, lanegun luzeak eta urtean zehar etenik ez izatea eskatzen dutela. Bestalde, merkataritzako marjinak gutxitzeak geroz eta bolumen handiagoekin lan egitera behartzen du. Alderdi horiek bizi-kalitateari egiten diete kalte eta belaunaldi-aldaketa baldintzatzen dute nekazaritza-jardueran.

*Lan familiarra eta alokatua ustiategietan (%)*  
*Trabajo familiar y asalariado en las explotaciones (%)*

	Euskal AE C.A. de Euskadi		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	1989	1999	1989	1999	1989	1999	1989	1999
<b>Lan familiarra</b> Trabajo familiar	93	89	88	69	93	94	95	95
<b>Titularra</b> Titular	50	52	54	47	52	57	46	50
<b>Ezkontidea eta famiako beste kide batzuk</b> Cónyuge y otros fam.	43	38	34	21	42	37	50	46
<b>Lan alokatua</b> Trabajo asalariado	7	11	12	31	7	6	5	5
<b>Finkoa</b> Fijo	4	8	5	24	5	5	3	4
<b>Behin-behinekoa</b> Eventual	3	2	7	8	2	1	1	1

Los trabajos previos a la realización del Censo de 1999 mostraban una preocupación en el sector por la disponibilidad de mano de obra. Los datos anteriores corroboran la pérdida de calidad de vida por sobrecarga de trabajo en algunos titulares. Aunque no fue posible indagar directamente sobre ello, si se podía inferir información al respecto por lo que se preparó un estudio específico.

1999ko zentsua egin aurretiko lanek, sektorean eskulana izateko kezka zegoela adierazi zuten. Aurreko datuek bizi-kalitatea galdu dela baieztatu dute, titular batzuek lan gehiegi zutelako. Ezin izan zen zuzeneko azterketarik egin, baina gai horren inguruko informazioa ondorioztatu egin zitekeen azterketa zehatzago bat eginda.

De cara a prever el tipo de demanda de mano de obra que habrá en la C.A. de Euskadi en los próximos años, se ha realizado una estimación a partir de los datos del Censo de 1999. Los criterios para establecer qué explotaciones se encuentran en situaciones de sobrecarga de trabajo y son por tanto demandantes potenciales de mano de obra, varían de uno a otro subsector, pero están básicamente relacionados con las siguientes variables: número de jornadas/año trabajadas por el jefe de explotación, número de efectivos o hectáreas en la explotación, Margen Bruto Standard total de la explotación, Unidades de Trabajo Agrícola (UTAs) totales y ayudas familiares.

Hurrengo urteetan Euskal AEn eskatuko den eskulan-mota aurrez ikusteko, 1999ko zentsuetan oinarritutako balioespena egin da. Zein ustiategik duten lan gehiegi eta, hortaz, eskulana eska al dezaketen jakiteko irizpideak aldatu egiten dira azpisektore batetik bestera, baina oinarrian honako aldagai hauei daude lotuta: ustiategi-buruak lan egindako lanegun-kopurua urtean, ustiategiko langile eta hektarea-kopurua, ustiategiaren guztizko marjina gordin estandarra, guztizko urteko lan-unitateak (ULU) eta laguntza familiarra.

**Eskulana eska lezaketen ustiategi-kopurua 1999**  
Nº de explotaciones potencialmente demandantes de mano de obra. 1999

	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Esne-behiak</b> Vacuno leche	83	124	116
<b>Esne-ardiak</b> Ovino leche	100	22	59
<b>Baratzeak</b> Hortícolas	20	40	59
<b>Frutarbolak eta mahastiak</b> Fruticultura y viñedo	1.184	89	224
<b>Haragitarako behiak</b> Vacuno carne	72	21	15
<b>Hegazti-hazkuntza</b> Avicultura	1	16	17
<b>Untxi-hazkuntza</b> Cunicultura	2	9	21
<b>Zerri-aziendak</b> Porcino	14	2	4
<b>Haragitarako ardiak</b> <b>Ovino carne</b>	15	-	-
<b>Belarrezko estentsiboak</b> Herbáceos extensivos	156	-	-

El viñedo de Rioja Alavesa demanda un número de personas muy elevado, aunque también el txakoli de *Bizkaia* y *Gipuzkoa* tiene un nivel importante de demanda. En estos casos lo habitual es que cubrir la demanda en las fechas de vendimia resulte relativamente sencillo, aunque la falta de alojamientos, la ausencia de convenio agrario y otra serie de cuestiones en las que no es posible profundizar en el marco de este informe, hacen que la situación de agricultores y trabajadores sea complicada. La problemática es distinta en el caso de la poda, la espergura y el desniete, tareas para las que habitualmente no se ha contratado personal, pero que debido a la actual ausencia de mano de obra, el dimensionamiento de las explotaciones y los nuevos hábitos de vida, comienzan a contratarse.

En el caso de hortícolas, herbáceos extensivos e incluso ovino de leche, la demanda de mano de obra se concentra también en determinadas fechas, lo cual dificulta la búsqueda de mano de obra. La situación es similar en el caso de vacuno de carne, dado que se demanda personal para el manejo de praderas y maquinaria agrícola.

Arabako Errioxako mahastiek langile-kopuru handia eskatzen dute, bai eta Bizkaiko eta Gipuzkoako txakolinarenek ere. Kasu horietan ohikoena litzateke mahatsa biltzeko garaiko eskaera erraz betetzea, baina nekazarien eta langileen egoera zailtzen duten beste hainbat eragile daude, txosten honen barruan azter ezin daitezkeenak; hala nola ostatu falta, nekazaritzako hitzarmenik ez egotea, eta abar. Inausketaren, eta udaberriko eta udako kimaketaren arazoak bestelakoak dira. Lan horietarako ez da normalean langilerik kontratatu, baina egun kontratatzen dira, eskulana falta delako, ustiategiak handiagoak direlako eta bizi-azturak aldatu direlako.

Baratzeen, belarrezko estentsiboen eta esne-ardien kasuan, eskulana data jakin batzuetan eskatzen da gehien, eta horrek zaildu egiten du eskulana aurkitzea. Haragitarako behien egoera ere antzerakoa da; izan ere, belardiak kudeatzeko eta nekazaritza-makineria erabiltzeko eskulana behar izaten da.

El caso de las explotaciones de vacuno de leche es distinto porque la demanda de mano de obra es continuada y por tanto es posible ofrecer continuidad a los trabajadores, lo cual no implica que la contratación sea sencilla dado que se trata de una problemática con sus propias características.

Las situaciones de sobrecarga de trabajo detectadas están siendo gestionadas de forma distinta en los diferentes casos. Para viñedo existe una iniciativa de UAGA que facilita la contratación de trabajadores para vendimia y también para poda, espergura y desniete. En vacuno - leche se han puesto en marcha varias cooperativas u otro tipo de asociaciones que permiten repartir el trabajo, en algún caso incluso se ha contratado a personal de forma compartida entre más de una explotación.

Por último, existe una demanda generalizada de mano de obra que cubra bajas y vacaciones de agricultores y ganaderos. En este sentido las iniciativas puestas en marcha por los Centros de Gestión han tenido una muy buena acogida y es previsible que la demanda se incremente en los próximos años.

Esne-behien kasua bestelakoa da. Eskulanaren eskaera etengabea da eta hortaz, langileei jarraitasuna eskaintzea ahalbidetzen da. Horrek ez du esan nahi langileak aurkitzea erraza denik, berezko ezaugarriak dituen arazoa baita.

Kasuaren arabera, desberdin kudeatzen dituzte gehiegizko lana pilatzen denean sortutako egoerak. Mahastien kasurako, Arabako Nekazari eta Abeltzainen Batasunaren (UAGA) ekimena dago; mahatsa biltzeko langileak kontratatzea errazten du, bai eta inausketarako, eta udaberriko eta udako kimaketarako eta ere. Esne-behien kasuan, hainbat kooperatiba edo bestelako elkarte jarri dira abian; horrela, lana banatu egiten da eta noizbait jendea kontratatu ere egiten dute hainbat ustiategiren artean.

Azkenik, nekazarien eta abeltzainen opor garaian lan egiteko eskulan eskaera orokorra dago. Ildo horretan, Kudeaketa Zentroek abian jarritako ekimenek harrera ona izan dute, eta hurrengo urteetan eskaera haztea aurrez ikus daiteke.

## 10. ASOCIACIONISMO

En un momento en el que el dimensionamiento de la actividad es fundamental para la adaptación y supervivencia de las explotaciones, el asociacionismo adquiere importancia también de cara a mejorar la calidad de vida. En este apartado se ha analizado tanto el asociacionismo productivo como otras formas de asociacionismo que abarcan determinadas fases del proceso, por ejemplo la transformación o la comercialización.

### 10.1. Asociacionismo de producción.

En 1999 el 95% de las explotaciones de la C.A. de Euskadi tienen la forma jurídica de persona física, mientras que en 1989 el porcentaje se situaba en un 96%. El dato no ha variado sustancialmente y a la vista está que el resto de formas jurídicas tienen poca presencia, máxime si tenemos en cuenta que esos 4% y 5% restantes engloban entidades públicas (Ayuntamientos, Diputaciones, Entidades Administrativas...). Sumadas las cooperativas de producción, las SATs y las Sociedades Mercantiles suponen tanto en 1999 como en 1989 el 1% del total de explotaciones de la C.A. de Euskadi, siendo mucho más elevado el número de Sociedades Mercantiles (278 en 1989 y 260 en 1999) que de SATs (40 en 1989 y 33 en 1999) y cooperativas (27 en 1989 y 22 en 1999). El reducido número de "explotaciones asociativas" se contradice con el interés que el sector demuestra por este tipo de iniciativas y por sus repercusiones positivas sobre la calidad de vida de agricultores y ganaderos, pero puede ser también fiel reflejo de las dificultades que entraña adoptar iniciativas de este tipo.

## 10. ELKARTEGINTZA

Une honetan, jardueraren itxuraketa funtsezkoa da ustiategiak egokitzeko eta irauteko. Horregatik, elkartegintzak garrantzi handia du bizi-kalitatea hobetzeko ere. Atal honetan, ekoizpen-elkartegintza aztertu da, bai eta beste elkartegintza era batzuk ere, prozesu osoaren zati bat hartzen dutenak, adibidez, eraldaketa edo merkaturatzea.

### 10.1. Ekoizpen-elkartegintza..

1999an, Euskal AEko ustiategien % 95ek pertsona fisikoaren forma juridikoa zuten. 1989an, % 96 zen. Datu hori ez da asko aldatu, eta begi-bistakoa da beste forma juridikoetatik gehiegi ez dagoela; are gehiago, gainerako % 4 eta % 5, entitate publikoak direla kontuan izanda (Udalak, Aldundiak, Administrazio-erakundeak, eta abar). Ekoizpen-kooperatibak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak eta baltzuak batuta, bai 1989an eta bai 1999an, Euskal AEko ustiategi guztien % 1 dira. Hala ere, baltzuen kopurua askoz ere handiagoa da (278 1989an eta 260 1999an) eraldaketarako nekazaritza-sozietateena baino (40 1989an eta 33 1999an) eta kooperatibena baino (27 1989an eta 22 1999an) «Elkartegintzako ustiategien» kopurua txikia da, eta hori, sektoreak ekimen-mota horren inguruan duen interesaren aurkakoa da, bai eta nekazarien eta abeltzainen bizi-kalitatearen gainean duen eragin onuragarriaren aurkakoa ere. Baina mota horretako ekimenak aurrera eramatea zeinen zaila den ere islatzen du.

**Nortasun juridiko motak**  
*Tipo de personalidad jurídica*

	1989		1999	
	Ustiategi-kop Nº explot.	%	Ustiategi-kop Nº explot.	%
<b>Ustiategiak, guztira</b> Todas las explotaciones	43.193	100	39.956	100
<b>Pertsona fisikoa</b> Persona física	41.649	96	38.018	95
<b>Entitate publikoa</b> Entidad pública	240	1	617	2
<b>Bestelakoak</b> Otros	345	1	315	1
<b>Baltzua</b> Sociedad mercantil	278	1	260	1
<b>Ekoizpen-kooperatiba</b> Cooperativa de producción	27	0	22	0
<b>Eraldaketarako nekazaritza -sozietatea (ENS)</b> Sociedad agraria de transformación (SAT)	40	0	33	0

Sería muy interesante comentar la evolución del asociacionismo para la producción en general y del cooperativismo de producción en particular, pero el número de explotaciones que adoptan estas formas jurídicas es porcentualmente tan reducido que su significación estadística debe ser puesta en duda. Sería más adecuado por tanto, un análisis cualitativo y no de tipo cuantitativo. En cualquier caso, y aunque los datos de que disponemos presentan dificultades para la generalización, merece la pena mencionar la importante presencia del cooperativismo en *Bizkaia*, donde, según el Censo de 1999 se encuentran 9 de las 20 cooperativas de la C.A. de Euskadi que cubren 60 de las 98 UTAs de toda la comunidad autónoma. Especialmente importante es la presencia en este Territorio.Histórico de las cooperativas de granívoros y hortícolas (huerta y flores) que ocupan respectivamente 24 UTAs y 19 UTAs englobadas todas ellas en 4 explotaciones (de ahí que sea difícil comentar estadísticamente la evolución).

Oso interesgarria litzateke elkartegintzaren bilakaera aipatzea, orokorrean ekoizpena, eta zehazki ekoizpen-kooperatibak aztertuz. Baina forma juridiko hori duten ustiategien ehunekoa txikia da, eta horren txikia izaki, estatistika-mailan esanguratsua izatea zalantzan jartzekoa da. Egokiagoa litzateke, beraz, analisi kualitatiboa, eta ez kuantitatiboa. Dena den, eta eskuragarri ditugun datuak ondorio orokorrak ateratzeko nahikoa ez direnez, merezi du Bizkaiko kooperatibismoa aipatzea; izan ere, 1999ko zentsuaren arabera, han daude Euskal AEko 20 kooperatibetako 9, autonomia-erkidego osoko 98 ULUtik 60 betetzen dituztenak. Lurralde horretan, alejale- eta baratzezaintza-kooperatibak (baratzeak eta loreak) daude batez ere. 24 eta 19 ULU betetzen dute hurrenez hurren, lau ustiategitan (horregatik da zaila horien bilakaera estatistika aldetik azaltzea).

**Kooperatiben banaketa**  
*Distribución de las Cooperativas*

	1989		1999	
	Kopurua Número	ULUak UTAs	Kopurua Número	ULUak UTAs
<b>Euskal AE</b> C.A. de Euskadi	21	67	20	98
<b>Araba/Álava</b>	3	24	5	16
<b>Bizkaia</b>	9	36	9	60
<b>Gipuzkoa</b>	9	7	6	22

La comparación de estos datos con los de 1989 nos permite hablar de mantenimiento del número total de cooperativas de producción y cierto incremento de las UTAs cubiertas por éstas

Datu horiek 1989koekin alderatuz gero ikus daiteke, ekoizpen-kooperatiben kopurua mantendu egin dela eta horiek ULU gehiago betetzen dutela.

El número de SATs para la producción es también muy reducido, en 1999 asciende a 30 y las UTAs a 117. Nuevamente destacan *Bizkaia* en granívoros y horticultura porque entre ambos suman 35 UTAs, destaca también *Gipuzkoa* con 16 UTAs en granívoros y *Álava* con 38 UTAs y 7 SATs en bovinos de leche. Se desconoce la evolución en el número de SATs dado que el Censo de 1989 no las contabiliza.

Ekoizpenerako ENSen kopurua ere oso txikia da: 1999an 30 dira eta 117 ULU betetzen dute. Berrito ere, Bizkaia nabarmentzen da alejaleen eta baratzezaintzaren alorretan; bien artean 35 ULU betetzen dute. Gipuzkoa ere nabarmentzen da, alejaleetan 16 ULU betetzen baititu; eta Araban, esne-behien alorrean 38 ULU betetzen dira eta 7 ENS daude. ENSen kopurua bilakaera ez da ezagutzen; izan ere, 1989ko zentsuak ez zituen zenbatu.

**ENSen banaketa**  
*Distribución de las SATs.*

	1989		1999	
	Kopurua Número	ULUak UTAs	Kopurua Número	ULUak UTAs
<b>Euskal AE</b> C.A. de Euskadi	-	-	30	117
<b>Araba/Álava</b>	-	-	13	53
<b>Bizkaia</b>	-	-	9	41
<b>Gipuzkoa</b>	-	-	8	23

Ya se ha apuntado que en cuestión de producción la forma asociativa más extendida es la sociedad mercantil y además se detecta cierto incremento tanto en el número de explotaciones, 174 en 1989 y 181 en 1999, como en el número de UTAs, 383 y 468 respectivamente. Este incremento ha sido especialmente acentuado en *Álava*, donde en 1989 había 27 sociedades y 109 UTAs y en 1999 el número de sociedades ascendía ya a 61 y las UTAs a 248. En este Territorio Histórico, concretamente, las sociedades mercantiles dedicadas a viticultura han pasado de 13 a 33 y a ellas se puede atribuir en gran medida el ascenso general. Contrariamente a la tendencia general han descendido, especialmente en *Bizkaia* y *Gipuzkoa*, las sociedades dedicadas a "praderas, ovinos, caprinos y otros herbívoros"

Lehen ere aipatu bezala, baltzuak dira ekoizpen-elkartegintzan ohikoenak. Gainera, gora egin dute bai ustiategien kopuruak (174 1989an eta 181 1999an) eta bai ULU kopuruak ere (383 eta 468, hurrenez hurren). Hazkunde hori Araban handiagoa izan da: 1989an 27 baltzu zeuden eta 109 ULU, eta 1999an 61eraino igo zen baltzuen kopurua, eta 248raino ULUena. Lurralde horretan, zehazki, mahastizaintza-jarduera duten baltzuak 13 izatetik 33 izatera pasa dira, eta gorakada orokorra horiei esker izan dela ondoriozta daiteke. Joera orokorraren aurka, batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan, «Belardiak, ardi-azien-dak, ahuntz-aziendak eta beste belarjaleak» alorreko sozietate-ek behera egin dute.

**Baltzuen banaketa**  
*Distribución de las Sociedades Mercantiles*

	1989		1999	
	Kopurua Número	ULUak UTAs	Kopurua Número	ULUak UTAs
<b>Euskal AE</b> C.A. de Euskadi	174	383	181	468
<b>Araba / Álava</b>	27	109	61	248
<b>Bizkaia</b>	90	146	65	109
<b>Gipuzkoa</b>	57	128	55	111

## 10.2. Asociacionismo de comercialización y/o transformación.

En términos generales el porcentaje de explotaciones asociadas para la industrialización y la comercialización en la C.A. de Euskadi se mantiene de un Censo a otro. Pero un análisis por Territorios Históricos revela que se han dado cambios importantes, dado que estos porcentajes se han incrementado sustancialmente en *Álava*, situándose en el 30% del total de explotaciones y han descendido en *Gipuzkoa* que, de encabezar la lista en 1989, ha pasado a colocarse en un segundo puesto y a mucha distancia de *Álava*, con un 7%. *Bizkaia* se mantiene en los reducidos porcentajes habituales.

El incremento que ha tenido lugar en *Álava* se debe, especialmente, al número de explotaciones de cereales, oleaginosas, proteaginosas, hortícolas extensivas IV gama y patata de contrato que se han asociado para transformar y/o comercializar en los últimos años.

Los datos en *Gipuzkoa* reflejan una caída del asociacionismo que viene explicada por la caída del número de explotaciones totales dedicadas a vacuno - leche. Un análisis de este subsector refleja que se ha reducido tanto el número de explotaciones asociadas como el número total de explotaciones, si bien en términos porcentuales se ha dado un incremento, pasando del 35% al 45%. Hay otras OTEs en las cuáles sí se han detectado ligeros descensos en los porcentajes: "frutales y cítricos", "otros cultivos y ganadería"...

## 10.2. Merkaturatze- edo / eta eraldatze-elkartegintza.

Orokorrean, Euskal AEko industrializazio- eta merkaturatze-ustiategien ehunekoa mantendu egin da zentsu batetik bestera. Lurralde historikoei begiratuta, aldaketa handiak egon direla ikus daiteke. Izan ere, ehuneko horiek asko handitu dira Araban (ustiategi guztien % 30) eta txikitu Gipuzkoan; azken lurralde hori 1989ko zerrendan lehena zen eta bigarren orain, Arabarengandik urrun, ustiategi guztien % 7 baitu. Bizkaian ohiko ehuneko txikiak mantendu dira.

Arabian izandako hazkundera honako ustiategi hauei esker gertatu da bereziki: zerealak, oliodunak eta proteaginosoak, IV gamako baratzezaintza estentsiboa eta kontratuko patatak. Izan ere, ustiategi horiek elkartu egin dira azken urteotan eraldaketarako eta / edo merkaturatzerako.

Gipuzkoako datuek elkartegintzaren beherakada islatzen dute, esne-behien jarduera duten ustiategi guztien kopurua urritu delako. Azpisektorea aztertuz gero, elkarreko ustiategien kopurua eta guztizko kopurua jaitsi direla antzeman daiteke. Hala ere, ehunekoetan gorakada nabaritu da, % 35etik % 45era, alegia. Beste OTE batzuetan ehunekoetan beherakada txikiak antzeman dira; hala nola: «frutarbolak eta zitrikoak», «beste laborantza eta abeltzaintza batzuk», eta abar.

**Eraldaketarako eta merkaturatzerako elkartutako ustiategien banaketa**  
*Distribución de las explotaciones asociadas para comercialización y transformación*

	1989		1999	
	Kopurua Número	Gutzizko ustiategien gaineko ehunekoa % s/ total explotaciones	Kopurua Número	Gutzizko ustiategien gaineko ehunekoa % s/ total explotaciones
<b>Euskal AE</b> C.A. de Euskadi	2.598	8	34.405	9
<b>Araba / Álava</b>	453	9	6.075	30
<b>Bizkaia</b>	784	4	17.791	3
<b>Gipuzkoa</b>	1.361	13	10.539	7

## 11. MAQUINARIA

Este apartado está dedicado a la situación de las explotaciones agrícolas y ganaderas de la C.A. de Euskadi en relación a la adquisición de maquinaria en propiedad y en copropiedad y a la utilización de maquinaria de empresas de servicios.

La problemática respecto de la maquinaria varía sustancialmente de un Territorio Histórico a otro. En Álava, el número de tractores en propiedad se ha incrementado, pasando de 5.447 a 5.656. En cambio, el número de tractores en copropiedad ha descendido levemente y en 1.999 se ha situado en 231, frente a los 290 de 1989. También el número de tractores contratados a empresas de servicios ha descendido pasando de los 1.662 de 1.989 a los 914 de 1.999.

En *Álava* el número de cosechadoras de cereales propias se ha mantenido, situándose en 1.989 en 439 y en 1.999 en 420. Mientras el número de cosechadoras de cereales en copropiedad y contratadas a empresas de servicios han descendido, el primero de 432 en 1.989 a 227 en 1.999 y el segundo de 1.838 a 1.281.

En definitiva, los datos apuntan a un descenso en la compra conjunta de maquinaria y en la utilización de maquinaria de empresas de servicios en Álava. Es muy posible que esta tendencia se deba a la mayor libertad que ofrece tener maquinaria propia de cara a realizar las tareas en el momento que se considera más oportuno. En cualquier caso, es una tendencia contraria a aquella que las instituciones públicas desean impulsar al apoyar con ayudas la adquisición de maquinaria en copropiedad.

En *Bizkaia* y *Gipuzkoa* el incremento en el número de tractores propios es bastante similar al de *Álava*. En *Bizkaia* se ha pasado de los 5.200 de 1989 a los 6.004 de 1999 y en *Gipuzkoa* de 4.960 a 6.337. En tractores en copropiedad *Bizkaia* ha experimentado un incremento que va de 75 a 99, pero el incremento es más significativo en *Gipuzkoa* que en 1989 contaba con 26 y en 1999 con 144. En cambio, en lo que respecta a la contratación de tractores a empresas de servicios, *Bizkaia* ha experimentado un descenso muy importante que va de 4.767 a 1.724 y *Gipuzkoa* un pequeño descenso, de 1.314 a 1.179.

Por tanto podemos concluir que, al igual que Álava, *Bizkaia* y *Gipuzkoa* están experimentando un descenso en la contratación de maquinaria a empresas de servicios, pero, a diferencia de Álava, existe en estos territorios cierta tendencia a incrementar la compra de tractores en copropiedad. La tendencia es especialmente acentuada en *Gipuzkoa*, lo cual puede deberse a la propia idiosincrasia del territorio histórico, a ciertas diferencias en las políticas públicas con respecto a este tema o a una combinación de ambos factores.

## 11. MAKINERIA

Atal honek Euskal AEko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien egoera aztertzen du honako gai hauen inguruan: makineria jabetzan eta jabekidetzan erostea, eta enpresetako eta zerbitzuetako makineria erabiltzea.

Makineriaren inguruko arazoak oso desberdinak dira lurralde bakoitzean. Araban, jabetzan dauden traktoreen kopurua % 30etik gora hazi da. Bestalde, jabekidetzan dauden traktoreen kopurua apur bat jaitsi da; 290 ziren 1989an eta 231 1999an. Zerbitzu-enpresei kontratatutako traktore-kopuruak ere behera egin du; 1.662 ziren 1989an eta 914, 1999an.

Lurralde horretan bertan, jabetzan zeuden zereala biltzeko makinaren kopurua mantendu egin da; 439 1989an, eta 420 1999an. Jabekidetzan zeuden eta kontratatzen ziren zereala biltzeko makinaren kopuruak beherakada izan du. Lehen kasuan: 1989an 227, eta 1999an 432. Bigarreanean: 1.838 tik 1.281era.

Azken finean, datuen arabera, Araban jabekidetzan erositako makineriak behera egin du, bai eta zerbitzu-enpresen makineriaren erabilerak ere. Joera horren arrazoia honako hau da ziu-rrenik: nor bere makineria izanda, askatasun handiagoa dago lanak egokien irizten den momentuan egiteko. Nolanahi ere, erakunde publikoek bultzatu nahi dutena, joera horren aurkakoa da; izan ere, makineria jabekidetzan erosteko diru-laguntzak ematen dituzte.

Bizkaian eta Gipuzkoan, jabetzan dauden traktoreen ugaritzea Arabakoaren antzerakoa da. Bizkaian 5.200 zeuden 1989an eta 6.004 1999an. Gipuzkoan berriz, 4.960 lehen eta 6.337 gero. Jabekidetzan erositako traktoreetan, Bizkaian gorakada handia izan da (75etik 99ra). Baina hazkunde handiena Gipuzkoakoa izan da: 1989an 26 ziren eta 1999an, 144. Bestalde, zerbitzu-enpresei kontratatutako traktoreei dagokienez, Bizkaian beherakada handia izan da (4.767tik 1.724ra) eta Gipuzkoan beherakada txikia (1.314tik 1.179ra).

Hortaz, ondoriozta daiteke Arabaz gain, Bizkaian eta Gipuzkoan ere beherakada izan dela arlo horretan; baina, Araban ez bezala, traktoreak jabekidetzan erosteko joera dago lurralde horietan. Joera are handiagoa da Gipuzkoan, eta hainbat arrazoi posible daude: lurraldearen berezko idiosinkrasia, gai honen inguruan izandako politika publikoak desberdinak izatea, edo bi faktore horien batura.



## 12. DESTINO Y COMERCIALIZACIÓN DE LA PRODUCCIÓN

## 12.1. Destino de la producción.

Las explotaciones agropecuarias presentan diferentes estructuras productivas en función de los productos que obtienen. Dichos productos, además, pueden considerarse distintos según sea el destino final de los mismos. Por ejemplo, la patata puede destinarse para consumo humano o para siembra; el hecho que una explotación oriente su producción hacia un tipo u otro de patata le obligará a adoptar un modelo productivo distinto.

En este punto no se pretende realizar un análisis exhaustivo de todos y cada uno de los destinos de los diferentes productos agropecuarios sino de aquellos que se consideran más importantes.

En el cuadro adjunto figura la distribución por destinos y por Territorios Históricos de los productos o grupos de productos más significativos. La distribución por destinos se ha realizado en base a la superficie de cultivo declarado o las UGM presentes en la explotación.

## 12. EKOIZPENAREN HELMUGA ETA MERKATURATZEA

## 12.1. Ekoizpenaren helmuga.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiek ekoizpen-egitura desberdina dute egiten duten produktuaren arabera. Produktu horiek, gainera, desberdintzat jo daitezke helmugaren arabera. Adibidez, patata giza kontsumorako edo ereiteko erabil daiteke. Patata-mota batak eta besteak ez dute ekoizpen-eredu bera, hortaz ustiategiek lortu nahi duten ekoizpen-motaren arabera eredu bat edo bestea izango dute.

Atal honen helburua ez da nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu guztien helmugak ezagutzea, baizik eta garrantzi handiena dutenenak.

Honako taula honetan, produktu edo produktu-talde esanguratsuenen helmugaren arabera banaketa azaltzen da lurraldeka. Helmugaren arabera banaketa, deklaraturako laborantza-azalerari edo ustiategi bakoitzeko ALUei begiratuta egin da.

PRODUKTUA EDO PRODUKTU-TALDEA PRODUCTO O GRUPO DE PRODUCTOS	HELMUGA DESTINO (%)	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
PATATA PATATA	KONTSUMOA CONSUMO	84	83	98	99
	EREITEA SIEMBRA	16	17	2	1
BARAZKIAK HORTALIZAS	KONTSUMOA CONSUMO	97	97	97	97
	HAZIAK EDO LANDAREÑOAK SEMILLAS O PLÁNTULAS	3	3	3	3
ARDOTARAKO MAHATSA UVA PARA VINO	MAHATSA UVA	54	55	16	8
	ARDOA VINO	46	45	84	92
BEHI-ESNEA LECHE DE VACA	ESNEA LECHE	98	95	99	98
	BESTE ESNEKI BATZUK OTROS LÁCTEOS	2	5	1	2
ARDI-ESNEA LECHE DE OVEJA	ESNEA LECHE	70	67	73	70
	GAZTA QUESO	28	31	26	28
	BESTE ESNEKI BATZUK OTROS LÁCTEOS	2	1	2	2
AHUNTZ-ESNEA LECHE DE CABRA	ESNEA LECHE	81	65	88	84
	GAZTA QUESO	18	34	11	15
	BESTE ESNEKI BATZUK OTROS LÁCTEOS	1	2	1	2
BEHIAK BOVINO	BIZIAK VIDA	43	48	51	33
	AKABATZEKO SACRIFICIO	57	52	49	67
ARDIAK OVINO	BIZIAK VIDA	35	41	53	25
	AKABATZEKO SACRIFICIO	65	59	47	75
ZERRIAK PORCINO	BIZIAK VIDA	20	26	13	19
	AKABATZEKO SACRIFICIO	80	74	87	81

El 63% de la superficie de patata de *Álava* se destina a la producción de patata de consumo para fresco, el 20% a consumo para industria y el 17% restante a patata de siembra. En *Bizkaia* y *Gipuzkoa* la producción de patata está destinada a consumo en fresco. La producción de hortalizas también está dirigida al consumo en fresco y tan sólo un 3% de la superficie total se destina a semilleros o para obtener plántulas destinadas a la venta.

El 55% de la uva producida en las explotaciones con viñedo de *Álava* se venden como uva y el 45% restante de la uva se transforma en la propia explotación y se vende como vino. En *Bizkaia* y *Gipuzkoa*, sin embargo, suele ser más habitual que las bodegas dispongan de sus propios viñedos.

La leche de vaca normalmente no suele transformarse en las explotaciones agrarias y se comercializa como leche líquida; sin embargo, un 31% del total de la leche de oveja producida se transforma en la propia explotación fundamentalmente como queso y en menor medida como gaztazaharra y cuajada. La producción de leche de cabra tiene escasa importancia en el País Vasco y se comercializa generalmente como leche líquida.

Los animales bovinos vendidos se destinan al sacrificio en el 57% de las transacciones, correspondiendo el 43% restante a ventas para vida. En ganado ovino esta relación es de 65% para sacrificio y 35% para vida, mientras que en porcino pasa a 80% para sacrificio y 20% para vida.

## 12.2. Comercialización de la producción.

En este apartado se ha investigado los canales de comercialización utilizados para la producción anual de una serie de productos: cereales para grano, leguminosas grano, patata, alfalfa, hortalizas, flores y plantas ornamentales, uva para vino, frutas frescas, frutos secos, sacrificio de bovino de aptitud carne, sacrificio de bovino de aptitud leche, sacrificio de ovino, sacrificio de porcino, sacrificio de equino, aves para carne, conejos, leche de vaca, leche de oveja y huevos.

Los canales de comercialización considerados son:

- Autoconsumo: Destinado al consumo de la propia explotación. Dentro de este apartado se incluye tanto la producción destinada al consumo humano (leche, huevos, carne, patatas, hortalizas, frutas), como aquella que se utiliza con otros fines dentro de la explotación: consumo animal (recria en el caso de la leche y alimentación animal en el caso de forrajes), semillas para la campaña siguiente, etc.

- Venta directa al consumidor: Se incluye la producción que se vende desde la propia explotación directamente al consumidor final o bien la que se comercializa a través de ferias sin intermediarios.

- Venta a operadores comerciales privados de forma directa, entendiéndose como tal aquellos intermediarios que operan como suministradores de la industria transformadora o del sector comercial minorista, sin ejercer ninguna labor de transformación en el producto.

- Entrega a SAT-Cooperativas. El agricultor o ganadero entrega su producción en una SAT o en una cooperativa de la que es socio, la cual comercializa dicha producción.

Araban, patata-azaleraren % 63 freskotarako kontsumoko patata da; % 20 industriarako kontsumokoa eta % 17, ereiteko. Bizkaian eta Gipuzkoan, patata-ekoizpena freskotarako kontsumorako da. Barazki-ekoizpenek ere freskotarako kontsumoa dute helmuga, eta guztizko azaleraren % 3 baino ez da ereinaldirako edo salmentarako landareñoetarako erabiltzen.

Araban, mahasti-ustiategietan ekoiztutakoaren % 55 mahats gisa saltzen da, eta % 45 ustiategian bertan eraldatzen da ondoren ardoa saltzeko. Hala ere, Bizkaian eta Gipuzkoan arruntagoa da upategiek euren mahastiak izatea.

Orokorrean, behi-esnea ez da nekazaritza-ustiategietan eraldatzen eta esne likido gisa merkaturatzen da. Ardi-esnearen % 30 berriz, ustiategian bertan eraldatzen da, gehienetan gazta egiten dute, nahiz eta batzuetan gazta zaharra eta mamia ere egiten duten. Ahuntz-esnea ez da ekoizpen garrantzitsua Euskal AEn eta normalean esne likido gisa merkaturatzen da.

Saltzen diren behien % 57 akabatzen izaten dira, eta % 43 bizitzeko. Saldutako ardien % 65 izaten dira akabatzen eta % 35 bizitzeko, eta zerrietan % 80 eta % 20, hurrenez hurren.

## 12.2. Ekoizpena merkaturatzea.

Atal honetan produktu jakin batzuen urteko ekoizpenak merkaturatzeko erabiltzen dituen bideak aztertu dira. Hala nola: aletarako zerealak, aletarako lekadunak, patata, alpapa, barazkiak, lore eta landare apaingarriak, ardotarako mahatsa, fruta freskoa, fruitu lehorrak, haragitarako behiak akabatzea, esnetarako behiak akabatzea, ardiak akabatzea, zerriak akabatzea, zaldiak akabatzea, haragitarako hegaztiak, untxiak, behi-esnea, ardi-esnea eta arrautzak.

Aintzat hartzen diren merkaturatze-bideak honako hauek dira:

- Autokontsumoa: Ustiategiak berak kontsumitzen du. Atal honetan sartzen dira giza-kontsumorako ekoizpena (esnea, arrautzak, haragia, patatak, barazkiak, fruta), bai eta ustiategian bertan beste helburu batzuetarako erabiltzen dena ere: animaliek kontsumitzeko (aurrerako hazkuntza, esnearen kasuan, eta animaliak elikatzea, bazkaren kasuan), hurrengo uzteko hazia, eta abar.

- Kontsumitzaileei zuzenean saltzea: Ustiategitik zuzenean azken kontsumitzaileari saltzea edo bitartekari gabeko ferietan merkaturatzea.

- Operadore komertzial pribatuei zuzenean saltzea. Horiek, eraldaketa-industria hornitzen duten bitartekariak dira, bai eta txikizkako merkatu-sektorea hornitzen dutenak ere, produktua eraldatu gabe.

- ENS eta kooperatibei banatzea. Nekazariak edo abeltzainak ENS bati edo kide den kooperatiba bati ematen dio ekoizpena, eta horiek merkaturatzen dute.

- Venta a industria transformadora. El agricultor o ganadero entrega su producción a una industria transformadora.
- Otras formas de comercialización. En general se recoge aquella parte de la producción que se transforma en la propia explotación y se vende como producto transformado (queso, vino, etc.)

#### Cereales para grano

Dentro de los cereales grano existen diferencias significativas entre Álava y los otros dos Territorios Históricos. Así en Álava fundamentalmente se cultivan trigo, cebada y avena y en menor medida centeno y maíz, mientras que en Bizkaia y Gipuzkoa se siembra exclusivamente el maíz (en muchas ocasiones asociado a judía). La producción alavesa se comercializa a través de las cooperativas o de los intermediarios quedando una pequeña parte para autoconsumo (como semilla y para la alimentación del ganado). En Bizkaia y Gipuzkoa prácticamente la totalidad de la producción se destina a la alimentación del ganado en la propia explotación.

- Eraldaketa-industriari saltzea. Nekazariak edo abeltzainak eraldaketa-industria bati ematen dio ekoizpena.
- Bestelako merkaturatze-bideak. Orokorrean, ustiategian bertan eraldatzen den ekoizpen zatia eraldatutako produktu gisa saltzen da (gazta, ardoa, eta abar).

#### Aletarako zereala

Aletarako zerealetan alde handiak daude Arabaren eta beste lurraldeen artean. Horrela, Araban garia, garagarra eta oloa lantzen dira funtsean, eta, nahiz eta gutxiago, zekalea eta artoa ere bai. Bizkaian eta Gipuzkoan artoa baino ez da lantzen (askotan lekei lotuta). Arabako ekoizpena kooperatiben edo bitartekarien bidez merkaturatzen da eta zati txiki bat autokontsumorako geratzen da (haziak eta abereen elikadura). Bizkaian eta Gipuzkoan ekoizpen ia osoa ustiategiko bertako abereak elikatzeke erabiltzen da.

**Aletarako zerealak merkaturatzeko bideen banaketa (%)**  
Distribución de los canales de comercialización en Cereales para grano (%)

	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Autokontsumoa <b>Autoconsumo</b>	5	3	96	94
Kontsumitzaileei zuzenean saltzea <b>Venta directa al consumidor</b>	0	0	2	1
Operadore komertzial pribatuei zuzenean saltzea <b>Venta a operadores comerciales privados</b>	39	40	2	4
ENS eta kooperatibei banatzea <b>Entregas a cooperativas/SATs</b>	54	55	0	1
Eraldaketa-industriari saltzea. <b>Venta a industria transformadora</b>	1	1	0	0
Bestelako merkaturatze -bideak <b>Otras formas de comercialización</b>	1	1	0	0

#### Leguminosas grano

Dentro de las leguminosas grano en Álava se producen mayoritariamente judía seca y guisantes, destinándose la judía al consumo humano dentro de la propia explotación y los guisantes son para alimentación del ganado y se comercializan fuera de la misma a través de cooperativas e intermediarios. En Bizkaia y Gipuzkoa el cultivo fundamental es la judía siendo su destino la alimentación humana, fundamentalmente de la propia explotación y en menor medida, se vende al exterior a través de canales cortos.

#### Aletarako lekadunak

Arabaren gehien ekoizten diren aletarako lekadunak leka lehorra eta ilarrak dira; leka ustiategiko bertako giza kontsumorako izaten dira eta ilarrak, abereak elikatzeke. Ustiategitik kanpo kooperatiben eta bitartekarien bidez merkaturatzen dira. Bizkaian eta Gipuzkoan leka da labore funtsezkoena. Ustiategiko bertako giza-kontsumorako izaten da funtsean, baina kanpora ere saldu ohi da bide motzen bitartez.

**Aletarako lekadunak merkaturatzeko bideen banaketa (%)**  
Distribución de los canales de comercialización en Leguminosas grano (%)

	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>Autokontsumoa</b> Autoconsumo	52	20	85	77
<b>Kontsumitzaileei zuzenean saltzea</b> Venta directa al consumidor	8	2	11	14
<b>Operadore komertzial pribatuei zuzenean saltzea</b> Venta a operadores comerciales privados	11	16	4	9
<b>ENS eta kooperatibei banatzea</b> Entregas a cooperativas/SATs	27	57	0	0
<b>Eraldaketa-industriari saltzea.</b> Venta a industria transformadora	2	5	0	0
<b>Bestelako merkaturatze -bideak</b> Otras formas de comercialización	0	0	0	0

**Patata**

En Bizkaia y Gipuzkoa este cultivo es básicamente de huerta, el autoconsumo se cifra entre el 84 y el 89% y la venta directa al consumidor entre el 8 y el 12%. En Álava, sin embargo el cultivo está "profesionalizado"; la patata de consumo se vende fundamentalmente a través de operadores comerciales privados, la patata de siembra por medio de cooperativas y la patata de industria (para frito) se dirige a la industria transformadora.

**Patata**

Bizkaian eta Gipuzkoan baraztetzan landu ohi da; % 84 eta % 89 artean autokontsumorako izaten da, eta kontsumitzaileei zuzenean saltzeko % 8 eta % 12 artean. Hala ere, Araban «profesionalizatutako» laborea da. Kontsumitzeko patatak orokorrean operadore komertzial pribatuen bidez saltzen dira, ereiteko patata berriz, kooperatiben bidez, eta industriarako patata (frijitzekeo) eraldaketa-industriara bideratzen da.

**Patatak merkaturatzeko bideen banaketa (%)**  
Distribución de los canales de comercialización en Patata (%)

	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>Autokontsumoa</b> Autoconsumo	11	4	89	84
<b>Kontsumitzaileei zuzenean saltzea</b> Venta directa al consumidor	4	4	8	12
<b>Operadore komertzial pribatuei zuzenean saltzea</b> Venta a operadores comerciales privados	57	61	3	4
<b>ENS eta kooperatibei banatzea</b> Entregas a cooperativas/SATs	26	28	0	0
<b>Eraldaketa-industriari saltzea.</b> Venta a industria transformadora	2	3	0	0
<b>Bestelako merkaturatze -bideak</b> Otras formas de comercialización	0	0	0	0

## Alfalfa

La alfalfa está implantada fundamentalmente en Álava con 430,58 Has. de las 504,85 Has. existentes en la C.A. de Euskadi. Este cultivo está destinado al autoconsumo dentro de la explotación ganadera, comercializándose a través de canales cortos un pequeño porcentaje como heno.

## Alpapa

Arabán lantzen da gehien; izan ere, Euskal AEn dauden 504,85 hektareatik, 430,58 Araban daude. Aziendako bertako autokontsumorako izaten da, eta zati txiki bat merkaturatzen da belar ondu gisa bide motzen bidez.

**Alpapa merkaturatzeko bideen banaketa (%)**  
Distribución de los canales de comercialización en Alfalfa (%)

	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>Autokontsumoa</b> Autoconsumo	74	72	95	72
<b>Kontsumitzaileei zuzenean saltzea</b> Venta directa al consumidor	10	11	5	0
<b>Operadore komertzial pribatuei zuzenean saltzea</b> Venta a operadores comerciales privados	8	9	0	0
<b>ENS eta kooperatibei banatzea</b> Entregas a cooperativas/SATs	6	6	0	28
<b>Eraldaketa-industriari saltzea.</b> Venta a industria transformadora	2	2	0	0
<b>Bestelako merkaturatze -bideak</b> Otras formas de comercialización	0	0	0	0

### Hortícolas (excluido huertos familiares de menos de 500 m2)

